

## *“Erran izan didate nire musika ez dela irratian jartzen den horietakoa”*

**Joseba Irazoki | Musikari alternatiboa**

Belardian taldearen laguntzaz Pobre Gara diskoa grabatu zuen iaz, mugak gainditzeko moduko kantu-sorta bikaina.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Dani Blanco

### **Zu ez zara Xabier Montoia!**

Ez, baina nire musikan harengandiik zerbait sumatzen ahal da. Bost urtez ibili nintzen berarekin eta normala da arrastoren bat gelditzea.

### **Bitoriano Gandiaga poeta mistiko-naturalista musikatu duzu maiz, baina zure lanari buruzko loreak ez dira mendian aurkitzen, baizik eta sarean...**

Ba ez dakit, ez dut soberatan klikatzen nire izena Google-en, baina egia da ezin naizela kexatu ditudan kritikekin.

### **Berako musikariak: amateurismotik bikaintasunera, eta berriro buelta?**

Musika proiektu interesgarriak ateratzen ari dira Beratik azkeneko urteetan. Dirudienez sorkuntza ez da gelditzen eta poztekoa da gure arteko kopiarik ez dagoela ikustea.

### **Zuretzat mugak non dira?**

Mugak bakoitzaren buruan daude normalean. Egon zen denbora bat ekoizpenak desberdin egiten ahal nituela, aurkeztuko nukeen lekua kontuan hartuta. Gaur egun ateratzen zaidana egiten dut eta kito.

### **Maixa eta Ixar bikotearentzat idatzi zenuen Mikele kantuak eman al zizun dirurik?**

Pixka bat bai, oraindik ere urtero zerbait ailegatzen zait eta horri esker afari-omenaldi goxoa eskaintzen diot nire buruari.

### **Zer pentsa lezake Ohio-ko batek “euskal country alternatiboa” entzutean?**

Erotuta daude euskaldun hauek! Ez, pentsatzen dut arraro xamarra egingo zaiola... Baina musika hori gustatuta eta gure hizkuntza euskara izanik ez dago bertze aukerarik.

### **Behin zure kantu bat entzun nuen Bizkaia Irratian. Melodia ona duen seinale, pentsatu nuen...**

Ba pozten naiz. Erran izan didate nire musika ez dela irratian jartzen den horietakoa, baina nik uste dut momentuak bilatzea dela, besterik ez.

### **Bide batez, triki-pop estiloa ez al zen euskal country alternatibo naturala?**

Alternatiboa baino gehiago, euskal countrya, baina bai izan zitekeen, zerbait berria izan zen trikiarentzat eta ongi egon zen.

### **Hitz egidazu hurrengo diskoak ekarriko dizun arrakastaz, mesedez.**

Gustatuko litzaidake arrakasta edukitzea, baina ez dut uste. Gainera, nagoen egoerak askatasun handia ematen dit nahi dudana egiteko. Euskal countrya, inprobisazioa edo puzkerrak botatzea, gustuko badut ere.

### **Inoiz jaikiko al dira egiazko musika zaleak?**

Uste dut egiazko musika zaleak beti erne daudela. Agian festibal handi horietara joaten diren hainbertze zaleei kontzertu tikiagoetara ere joatea gomendatuko nieke. Horiek dira jaiki beharrekoak. ■